

IRABAZI ITURRIAK

Hiru enpresari gazteak garenez, gazte ekintzaileentzat eskaintzen diren diru laguntza guztiak eskuratzen saiatuko gara. Hala nola, erakunde publikoetatik edo Berrikuntzarako Saitetik. Diru hori baliatuz, gure enpresaren hasiera finantzatuko dugu, gure helburu orokorretako bat, mundu mailan denborarekin haztea, lortu ahal izateko.

Armairuen ezaugarrien arabera (materialak,estiloa,tamaina...) adostuko da azken prezioa. Hortaz aparte, armairua muntatu eta eramateagatik, 100€ erantsiko zaizkio.

Bezeroak nahi duten moduan ordaindu dezakete, (esku dirutan, txartela edo transferentzia bidez). Gainera epeka ordaintzeko aukera dute. Azken prezioaren %30 aldeztatik ordaindu behar da. Gure negozioaren diru-sarrerak ziurtatzeko, bezeroen ongizatea bermatzen saiatuko gara; 2 urteko segurua dohain eskaintzen dugu.

